



## Itoitzen oroimenak badu lekua agoitzen


Agoizko Udala zorretan sentitzen zen Irati ibaiak urpean utzitako herrietako jendearekin. Sentimendu horri leial, izendapen ofiziala eman dio herriko plaza bati, eta dagoeneko Itoitz plaza deitzen da Kanpondo auzoan Nafarroako Enplegu Zerbitzua dagoen plaza hori. Gainera, oroitzapenerako eta aldarrikapenerako txoko berri horretan urtegiaren inguruko gertaeren kronologia, urtegia egin bitartean osatutako zenbait abestiren letrak eta desagertutako herrien argazkiak biltzen dituen panela jarri da.

Inaugurazio ekitaldian Las Milas taldeak Iratiri abestu zion; Idoia Donazarrek, berriz, Olatz Zugastiren "Itoitz" abestia eskaini zuen; eta Aritz Ugaldek, azkenik, Fermin Balentziaren "Irati" interpretatu zuen. Horien guztien ahotsek hunkigarri bilakatu zuten ekitaldi xumea, Idoia Zabaltzak pentsatutako panela inauguratu aurretik. Bertan, kronologikoki jasota daude urtegiaren aurkako borrokan izandako gertaerak eta urtegia egin bitartean emandako protesta eta bizipenak kontatzen dituzten garai hartan sortutako abestiak. Alfredo Leónnek diseinatutako panel horren bidez (Txaro Minak eta Blanca Zazpek

utzitako argazkiak ditu) atzera begiratu nahi izan da, urtegia eraikitzeke erabakia hartu zeneko momentutik (1985.ena) obrak hasi ziren (1993.ena) arte.

Zaharra zen Agoizko udalean etxea eta herria galtearekin batera bizitzaren eta identitatearen alde garrantzitsu bat galdu zuten pertsonak gogoan hartzeko lekua edukitzeko ideia. Itoitz plaza izendapenak barne hartu nahi ditu urpean gelditutako eta kalteak pairatu zituzten herri guztiak: Orbaiz, Artozki, Ezkai, Munian eta Nagore; ahaztu gabe, noski, Agoitzek ere gogorki ordaindu zuela.

Agoitzek presente eduki nahi ditu herri horiek, hala nola lurraren defentsan emandako borroka haren memoria eta oihartzuna. Itoitz plaza deitutako leku berri horren bidez ez da ahaztuko.



## Mueve Aoiz-Mugitu Agoitz

“Mueve Aoiz-Mugitu Agoitz” Agoizko Udaleko Berdintasun Arloko ekimen berria da. Martxoan hasi zen, nazioarteko emakumearen egunaren karietara. Kanpainaren helburua berdintasunezko eta erasorik gabeko Agoitz eraikitzea da, dantza eta musikaren bidez.

Esne Beltzaren “Ez da ezetz” abestian oinarrituta, Maite Gárrizek koreografia bat osatu zuen, flashmob bat egiteko. Irati Antzerki Taldeak herritar guztiei eza-gutzera eman zien lana, martxoaren zortzia ospatzeko antolatzen zuten ekitaldietako batean.

Rut Etxartek eta Edurne Mañúik editatu zituzten koreografia ikasteko bideo tutorialak. Gainera, Kanpondoak hiru masterclass antolatu zituen, eta bertan adin eta sexu mota guztietako berrogeita bat lagunek parte hartu zuten. San Migel Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuak ere parte hartu nahi izan zuen ekimenean, eta Maika Jimenezek ikasteko saio batzuk antolatu zituen bertan.



## Agoizko Udalaren adierazpena “la manada”ren sententziaren epaitza dela eta

2016ko Sanferminetan gertaturiko taldeko bortxaketa dela eta, behin Nafarroako Probintzia-azuzitegiaren sententziaren epaitza jakinda, Agoizko Udalak deklarazio instituzional bat onartu du, eta bertan biktima eta bere familiarekiko laguntza, maitasun eta solidaritate osoa igortzen du.

Gainera, agoiztar udalbatzak sententziaren epaitzarekin desadostasuna erakutsi nahi du eta baita egintzaren kalifikazioarekin ere, sexu abusuen delitu jarraitu bat bezala izendatu. Halaber, justizia eta edozein emakumeren askatasun osoa erreibindikatzen duen herriko aldarrikapenarekin bat egiten du.

Alfredo Leónnek diseinatu du logotipoa eta kanpaina. Iniziatibaren anagramarekin kaleratutako zapiak, berriz, “Simple diseño & serigrafía” enpresak egin ditu.

Ekainean gauzatu zen ekimena. Merkatuko plaza kolorez eta jendez gainezka zegoen, mezu argi eta tinkoa zabaltzeko: “EZ da EZETZ”. Ehun bat pertsonak eta Agoizko erraldioen konpartsako lau irudik gauzatu zuten flasmoba, Rut Etxartek, Edurne Mañúik eta Sonia Lambertok grabatzen zuten bitartean. Ikusteko, Angiluerreka Elkarrekin jai-aurreko astean antolatzen duen film laburren lehiaketaraino itxaron behar dugu.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie inizatiba eder honetan aktiboki parte hartu duten pertsonari eta gizarte eta kulturaren arloko entitate guztiei. Halaber, adierazi nahi du erasorik gabeko eta berdintasunean oinarritutako Agoitz eraikitzearen aldeko apustua egin duela, eta horretan buru belarri arituko dela.

## Toki maparen erreforma aurrera doa

Nafarroako Toki Administrazioako erreformak, Tokiko Maparen Erreforma deiturikoak, aurrera darrai, bi urte iraun duen partaidetza prozesua bukatu ondoren. Parlamentura eraman aurretiko azken urratsak ematen ari da orain. Bertan eztabaidatu eta bozkatuko da.

Pasa den maiatzaren 21ean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari igorri zion toki maparen erreformaren inguruko aurreproiektua. Federazioaren barnean aztertu eta eztabaidatu ondoren, pasa den ekainaren 22an egindako biltzar berezian erabaki zen oniritzia ematea Gobernuak aurkeztutako proposamenari. Proposamenak aldeko 148 boto (Agoizko udaleko aldeko botoa barne), kontrako 81 eta 11 abstentzio jaso zituen.

Federazioak Nafarroako Gobernuarekin izan duen eztabaidaren eta negoziazioaren fruitua da proiektua, eta, ondorioz, aurreproiektuak jasotzen dituen entitateek partaidetza prozesuaren bitartean egin zituzten proposamen asko.

## Udala, “Altsasu auzia” deitutako epaiaren aurka

Pasa den apirilean 50.000 pertsona bildu ziren Nafarroako hiriburuan, Altsasuko gazteentzako epai justua aldarrikatzeko. Ekainaren 16an, berriz, 80.000 lagun inguru bildu ziren eman berriko epaiaren aurkako manifestazio historiko batean. Martxa normaltasunez garatu zen, ibilbide berria izan zuen (Sadarretik Askatasunaren plazara) eta une oro islatu zuen izandako prozesu judizialarekiko jendearen haserrea.

Oroitaraztea dago zortzi gazteek 2-13 urteko kartzela zigorra jaso dutela desordena publikoa eta erasoak egotzita. Altsasu Gurasoak, gazte horien gurasoak biltzen dituen entitateak, “mendekutat” hartu zuten epaia, “eman zitekeen zigorrik handiena” erabaki

Federazioak oniritzia eman badiore, oraindik gelditzen diren desadostasunen (NUKferen azken txostenean 8 adierazita daude) inguruan negoziatzen jarraitzeko konpromisoa hartu du Gobernuarekin zein parlamentuko taldeekin. Helburua Parlamentuan bozkatzeko momentua ailegatu arte fintzen joatea da.

Behin proposamenak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren oniritzia jaso eta Parlamentuan aurkeztuta, talde politikoak emendakinak aurkeztu eta testua aldatzen joan ahalko dira. Proposamenaren berri emanen dizuegu, behin betiko testua erabakitzen denean.



### 12 ESKUALDE NAFARROAKO TOKI ERREFORMA

Arga	Udalari kopua	36
	POPULAZIOA 2017	361.574
Bidasoa	Udalari kopua	21
	POPULAZIOA 2017	22.355
Ega	Udalari kopua	66
	POPULAZIOA 2017	58.514
Erdi Aldea	Udalari kopua	19
	POPULAZIOA 2017	26.069
Erribera	Udalari kopua	19
	POPULAZIOA 2017	87.136
Erribera Garaia	Udalari kopua	8
	POPULAZIOA 2017	25.567
Izarbeibar-Novenera	Udalari kopua	20
	POPULAZIOA 2017	12.967
Larraun-Leitzaldea	Udalari kopua	10
	POPULAZIOA 2017	8.569
Pirinio	Udalari kopua	30
	POPULAZIOA 2017	5.204
Pirinioaurrea	Udalari kopua	12
	POPULAZIOA 2017	5.539
Sakana	Udalari kopua	15
	POPULAZIOA 2017	20.185
Zangozako Eskualdea	Udalari kopua	16
	POPULAZIOA 2017	9.555
Total Udalari kopua		272
Total POPULAZIOA 2017		643.234

zuelako. Hala ere, gurasoek aitortu zuten lasaigarria izan zela haientzako terrorismo delitutzat hartu ez izana, horrela hartuz gero, zigorrak 62 urte eta erdi-koak izan litezkeelako.

Agoizko Udalak elkartasuna eta atxikimendua erakutsi die beti atxilotutako familiei, eta bi manifestazioetan parte hartzeko gonbitea luzatu du. Gainera, udaleko osoko bilkurak berriki onetsi du agerpen instituzional bat, Auzitegi nazionalako epaiarekin bat egiten ez duena, desordena publiko eta erasoengatik Altsasuko zortzi gazteei emandako zigorra proportzio gabea delakoan.

## Pertsonen sexu askatasunaren aldeko nazioarteko eguna

Ekainaren 28an ospatzen da LGBTBI+ pertsonen Sexu Askatasunaren Aldeko Nazioarteko Eguna, aniztasuna ospatzeko eta eskubideen alorrean dagokionez egiteko dagoen guztia aldarrikatzeko eguna.

Ospakizun honen karietara, Agoizko Udalak agerpen bat onetsi du, LGBTBI+ mugimendua osatzen dutenen borroka aitortzeko. Pertsona horiek, egunez egun, edozein diskriminazio mota ezabatzeko egiten duten lanarekin, gizarte zuzenagoa, berdintsuagoa eta feministagoa eraikitzeko ekarpen handia egiten dute. Agoizko udalbatzak borroka horren aldeko bere konpromisoa adierazten du, ez bakarrik agerpenaren bidez, baizik eta gizarteko ordezkariekin adostutako ekintzak martxan jartzeko beharrezko giza baliabide eta baliabide tekniko eta ekonomikoak ezarriz, beti



ere ikuspuntu feminista eta eraldatzaile batetik.

Oinarrizko giza eskubideei buruz ari gara: norberaren identitatea zehaztea eta askatasunez bizitzea.

## Udal txikiak Osoko Bilkura egin du

Pasa den urtean gertatu zen moduan, udal txikia aukeratu eta gero, haren lana ez da jaietako ekitaldietara bakarrik mugatuko. Haien presentzia eta lana ikusi ahal izan genuen Olentzerori eta Errege Magoei harre- ra egin zietenetik aurrera. Ondoren, herriko kaleetan zeuden txakurren gorotzak garbitzeko auzolan bat egin zuten. Gainera, osoko bilkura bat egin zuten, eta hartan eskakizunak egin eta herriarekin zenbait konpromiso hartu zituzten.

Udal korporazioak eta idazkariak haien eserlekuan jarri eta hasiera eman zioten Osoko Bilkurari. Unai Lako alkateak, hitza hartu zuen udal txiki berriari eskerrak emateko. Ondoren, alkatea eta zinegotziak

altxatu eta, eserlekua utziz, erreleboa eman zioten haurrei. Ilazki Elizari alkate txikiak hitz batzuk esan zituen, gainerako zinegotzietan beren eskakizunak egiteko eta konpromisoak adierazteko hitza eman aurretik. Esandakoa jasotzeko akta luzatu zuen idazkariak, eta bilkura bukatutzat eman zen.

Egindako eskakizunen artean zeuden, besteak beste, txakurrak pixa egiteko eremua egokitzea, kirol instalazioetan jolas gune gehiago edukitzea, belar artifizial- dun futbol zelaia egitea eta gazte diskoaren ordutegia luzatzea. Konpromisoen zerrendan, berriz, garbitzeko auzolanak eta herritartasuna eta errespetua bultzat- zeko kanpainak egitea.



## Formakuntzaren alde egiten jarraitzen dugu



Arrakastaz bukatu da, berriki, Nafarroako Enplegu Zerbitzua- Nafar Lansareak, Agoizko Udala- ren laguntzarekin, antolatutako "Industriarako balio anitzeko

langilea" izeneko ikastaroa. 16 lagunek (horietako 4, emakume) egin dute 80 orduko iraupena izan duen prestakuntza aktibitatea.

Bost modulu zituen: arriskuen prebentzioa, biltegien kudeaketa, jasoketa-eskorga, jasoketa-plata- formak eta garabi-zubia. Ikasleek gai bakoitzaren arloko baimen profesionalak lortu dituzte; horre- tarako, klaseetara joan eta gaien inguruko azterketa egin behar izan dute. Horiei esker, lana aurkitzeko aukera gehiago izanen dituzte.

Agoizko Udalak tailerra egiteko lekuak eskaini zituen: Aurelio León Aretoa, eskola teorikoak emateko, eta, industrialdeko pabilioia, prak- tiktetarako.

Metálicas Zubelen laguntza izan da, bere instalazioetan eman bai- tira garabi-zubia izeneko modu- luaren eskola praktikoak.

## Irati HHS Mankomunitatea, hondakinen foru legearen alde

Hondakinen Foru Legea Nafarroako 2017-2022 Hon- dakinen Planaren (PRN) exijentzia da. Planak berak bere helburuak erdiesteko ezinbesteko tresnatzat hartzen du lege bat edukitzea. Kudeaketarako anto- laketa neurriak eta hondakinak gutxitzeko tresna ekonomikoak kontuan hartuko ditu. Halaber, honako urrats hauek bultzatuko ditu: PREBENTZIOA, BERRE- RABILERA, BIRZIKLAPENA ETA hondakinen hierarkia- ren BALORAZIOA, Europako arautegian eta Nafarroan berriki onetsitako planifikazioan aurreikusitako hel- buruak lortzeko.

Hondakinen Foru Legeak ezarriko dituen helburuetako bat etxeetan nahiz industrian sortutako Bio-hondaki- nen bilketa selektiboa orokortzearen sustapena izan- den da; isuriak zigortuko dira.

IRATI HHS Mankomunitatea buru belarri ari da helburu horiek bete nahian. Konpostajea zabaldu nahi du herri guztietara, eta laguntza ematen die herritarrei helbu- rua modu erraz, eroso eta eraginkor batez erdiesteko.

Mankomunitateak eskerrak eman nahi dizkie konposta egitearen aldeko kanpainak hasi zirenetik izena eman

duten familia guztiei. Hala ere, uste du arloko araute- giak ezarritako helburuak oso urrun dituela oraindik, eta, horregatik, zeregin horrekin hasteko gonbidapena egin du, duela gutxi egindako publizitate kanpaina baten bidez.

Informazio gehigarria edo zerbait argitu nahi baduzu, telefono hauetara (07:30-11:30 bitartean) deituta eska dezakezu: 609 667 233-948 33 62 17; edo, bestela, mezu bat idaztea duzu [infocompost@rsui- rati.es](mailto:infocompost@rsui-rati.es) helbidera.



## Izagabus zerbitzuak, 20 urte

Hogei urtez zerbitzua eman ondoren, "Voy y Vengo" deitutako Izagabusek logotipoa estreinatu du: bi autobus, joatekoa eta etortzekoa, aurpegi irribarretsu eta atsegin bat inguratzen dutenak. Horixe da Pirinioetako lau gizarte entitateek zerbitzurako erabiliko duten irudia. Alfredo Leónek egin ditu diseinua eta kanpainako kartelak.

Izaga Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak antolatutakoa da zerbitzua, eta jaiekin lotutako auto istripuak galarazteko programaren barneko neurria da. Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Nafarroako Gobernuo Drogamenpekotasuneko Osasun Departamentuak finantzatutakoa denez, joan-etorriaren prezioa mantentzeko aukera dago, 5 euroan, txartela alde aurretik hartuz gero. Erabiltzaileak hala egin ezean, bidaia bakoitzeko 5 euro ordaindu beharko du. Programa hau 16 urtetik gora-



koak izan baina adin nagusiak ez direnei zuzenduta dago (tutoreen baimena eduki behar dute), eta baita adinez nagusia direnei ere. Jaietara joateko ibilgaiak erabiltzeko ohitura txikitu eta garraio publikoa erabiltzeko handitu nahi da, etxera itzultzea delako garrantzitsua.

Beste urte batez, Izagabusi esker gazteak jaietara joan ahalko dira, errepidean istripurik izateko arriskurik eduki gabe. Zerbitzua nahi duenaren eskura dago honako herri hauetako jaietara joateko: Sanfermin, Aurizberri, Agoitz, Urrotz, Irunberri, Zangoza, Atarrabia. Horretarako autobus zerbitzuak eta Agoizko taxia baliatuko dira.

Aurten gainera, hogeigarren urteurrena dela eta, sorpresa izanen dituzte txartela alde aurretik hartzen dutenak. Zuen zain gaude!

## Bianako Printzea Institutuzioak Antxietari buruzko unitate didaktikoa argitaratu du

Agoitz, Añorbe, Kaseda eta Tafallako udalek Juan Antxieta artista erromanistaren lana balioan jartzeko elkarren artean egin duten apustuak urrats berria eman du irakaskuntzaren arloan. Izan ere, Nafarroako Gobernuo Nafarroako Printzea Institutuzioko Ondare Historikoko Zerbitzuak unitate didaktiko bat argitaratu du (CD-an). Tresna berri bat da, eskultorearen erretaula duten lau herrietako ikastetxeetan eta parroketan banatzeko, herri horietako ikasleek artista eta haren ingurune historiko eta soziala ezagutu ditzaten.



tea, lau erretaulen inguruko informazioa, eskultorearen ingurune historikoa, Errenazimendua eta bere lanean hain eragin handia izan zuen Migel Angelen lanarekiko konparazioa.

Bianako printzeak sareetan hedatuko du, doan jaitsi ahal izateko, inplikaturako entitate guztien helburua baita Antxietaren lana eza-gutzera ematea.

Unitatea Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta dago. Edukiaren barne daude, besteak beste, Juan Antxieta bera aurkez-

## Batnight-a, Agoitzen

Pasa den ekainaren 15ean Agoitzen egin zen «batnight» saio bat. Aktibitate hori gero eta ohikoagoa da gure herri eta hirietan. Gau ez ibilaldi bat egitean datza, gure inguruan bizi diren saguzarrak identifikatzeko.

Aurretik Juan Tomás Alcalde saguzarretan aditua den biologoak hitzaldi bat eman zuen. Bertan, ugaztun txiki horien bizitzaren inguruko informazio bitxia eman zuen. Horiek babesteko beharrez jarri zuen azpimarra, ezinbestekoak direlako gure ekosistemaren orekarako eta intsektuen gehiegi ez ugaltzeko.

## Musika eskolako ikasleen emanaldiak

Agoizko Udal Musika Eskolak aktibitate handia izan du ikasturteko hirugarren hiruhilekoan. Apirilean, azken urte hauetan egin ohi den moduan, Kultur Etxean egin zen San Migel ikastetxe publikoko ikasleei eskaintzen zaien kontzertu didaktikoa. Hauxe zen aurtengo kontzertuko leloa: "Reggeatona, neurri ona".

Maiatzean, sanisidrotako karietara, Musika Eskolako fanfarreak herrian barnako kalejira egin zuen. Hilabetea bukatzeko, Musika Eskolako txistu ikasleek, Uharteko eskolako ikasleekin trukean egiten ohi duen emanaldiak gainezka egin zuen Kultur Etxeko entzutegia.

Ekainean berriz, eskola egutegiko azken bi ekitaldiak eskaini ziren. Lehenengoa "Tazán" musikala izan zen eta bigarrena ikasturte bukaerako kontzertua.

## Harituk antolatutako Ninientzako musika tailerra

Harituk ikasturtean zehar antolatu dituen aktibitate eta ikastaroen programazioaren barnean, azken bi hilabeteetan, ninientzako musika tailerra eskaini du, Fátima Jiménez Valleren eskutik.

Haur eskolan eman dira prestakuntza ikastaroak zituen saio hauek: «soinu paisaiak», melodiak eta oldar erritmikoak. Zentzumenak piztea, familia loturak bultzatzea eta besarkatzeko aukera ematea ziren ikastaroaren helburuak. Baina entzun, ukitu edo, besterik gabe, begiratu ahal izateko esperientzia magikoa bizitzeko aukera eskaini nahi izan zen, niniei egokitutako espazio batean.

oso garrantzitsuak direlako. Datu bitxi bat: erpuru baten tamainako saguzar batek gau batez mila eltxo inguru jan ditzake.

Iluntzean, ibaiaren ondoko ibilaldia egin zuten. Entzuteko aparailu berezi batzuk baliatuz, lau saguzar mota desberdin identifikatu ziren: ur-saguzarra, pipistrela txikia, Bechstein saguzarra eta pipistrela mediterranea.

Eskerrak eman nahi dizkiogu aktibitate honetan parte hartu duten guztiei, bertan agertu zuten interesagatik.



Tailer berezia eta desberdina izan da, eta bertan parte hartu dute hamabi familiek errepikatuzko gogoz gelditu dira.



## XIII. Argazkilaritza lehiaketa antolatu da

Irailaren 21eko 13:00ak arte zabalik egonen da Agoizko Udalak antolatzen duen argazkilaritza lehiaketara lanak aurkezteko epea.

XIII. edizioa da aurtengoa. Lehiaketak bi modalitate ditu: lehenengoa, modalitate orokorra da, eta interesatutako guztiei zabaldua dago; eta, bigarrena, herritarren saria da, Agoitzen erroldatutakoei zabaldua dagoena. Argazkien gaia Agoitz izanen da: paisaiak, hirigintza, ondarea, ohiturak, jaiak, jendea. Originalak, argitaratu eta saritu gabeak izan beharko dute.

### Kultur balantzea

Ekainean hainbat kultur ekitaldi eta ospakizun izan ditugu, eta horietako batzuk ikasturte bukaerarekin lotuta egon dira: UMAFY-ren ikasturte bukaerako ekitaldia, DBH-ko ikasleei diploma banaketa, Trazán-en musikala eta Musika Eskolako ikasturte bukaerako emanaldia.

Erakusketek ere tokia izan dute programazioan. UMAFYko informatika ikasleek ikasturtean zehar egindako lanak ikusgai egon ziren. Eta Kultur Etxeko areto nagusian ikus zitezkeen "Parlamentu baten irudiak" izeneko erakusketa.

«Oasis» antzelana ailegatu zen herrira. Arte eszenikoaren arloko proiektu zabal baten parte da antzezlana, Agoizko gazteengana zuzenduta zegoen.



Zuri-beltzak edo kolorekoak izan ahalko dira.

Modalitate orokorrerako, 500 euro ezarrita daude, eta 300, herritarren sarirako. Herritarren saria aukeratzeko modua on-line izanen da. Azken epaia emateko egindako lanen aukeraketa ikusgai jarriko da Kultur Etxean. Bertan prestatuko da botoa on-line emateko ordenagailu bat.

Lehiaketaren oinarriak eskura daude udaleko web-orrian: [www.aoiz.es](http://www.aoiz.es).

Bilaketa ahots eta instrumentu taldeak gure herriko emigranteak omendu zituen «No te olvido» obraren kontzertuarekin.

Francisco Javier Oyarzun Bekak banatu ziren. Aurten emandako beken kopuruak errekorra lortu du: 24 pertsonak jaso dute arteen arloko ikasketekin ikasten jarraitzeko laguntza ekonomikoa.

Pasa den ekainaren hirugarren igandean izan zen Orreagarako ohiko erromeria. Hamarnaka pertsona abiatu ziren kolejiatarantz, Orreagako Ama Birjina ohoratzeko.

Hilea borobiltzeko, Ortzadar taldeak Plaza Dantza saio bat egin zuen Merkatuko plazan. Dantza tradizionalen sorta ikusgarri eta entretenigarria eskaini zuten.



## Kanpondoari buruzko berriak

Larraitz Osések, Kanpondoa enpresa publikoko kudeatzaileak, bukatutzat eman du enpresarekiko lotura, kudeatze lanetan hilabete batzuk eman ondoren. Denboraldi horretan lan handia izan du, lanaren zereginak ezagutzen eta instalazio, langile eta erabiltzaileekin lotutako erabakiak hartzen. Eskerrak eman nahi dizkiogu bere ahalegin eta inplikazioagatik, eta hurrengo lanean zorte on opa diogu. Orain, hutsik gelditu den lanpostua betetzeko hautaketa prozesuan murgilduta

dago Kanpondoa. Denbora gutxi barru horren inguruko erabakirik hartuko da eta egokiena izanen delakoan gaude. Ezagutzera emanen dugu, berririk izan bezain laster.

Bestalde, duela gutxi NAO-ean argitaratu da Kanpondoako zuzendaritza eta langileen arteko lan-hitzarmena. Enpresa sortu zenetik sinatutako hirugarren lan-hitzarmena da, eta bi urtez egonen da indarrean.